



ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIEN ARGAZKI LEHIAKETA ONDAREA KLIK BATEAN

Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Igerrak (Euskal Instagram Komunitatea) eta Ondare Lagunak taldearen eskutik, Instagram eta Facebook bidezko argazki lehiaketa aurkezten dugu.

Ondarearen Europako Jardunaldiak iraila eta azaro bitartean ospatuko dira. Honen inguruan ekitaldi pila egingo dira Gipuzkoako ondarea ezagutzeko. Testuinguru honetan, hurrengo argazki lehiaketa antolatu dugu:

OINARRIAK

Argazki mota

Irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuek sortu dituzten ondasun materialak eta inmaterialak, argazkien bidez erakutsi dezazuela nahi dugu.

Nola parte hartu?

Facebook edota Instagramera argazkiak igo behar dira hurrengo traolak erabilita:

- #OndareaGipuzkoa20
- #Igerrak_OndareaGipuzkoa20

Nork hartu dezake parte?

- 18 urte edo gehiagoko herritarrek, baldin eta ez badira IGERRAK, ONDARE LAGUNAK ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO langile edota ahaide hurbilak.
- Jardunaldietako ekintzetan parte hartu eta argazkiak egiten dituen edonor.
- Gipuzkoako "Kontaiguzu Ondarea" islatzen duten edozein argazki, nahiz eta jardunaldietan parte hartu ez.

Epea

Urriaren 1etik azaroko 18rarte. Biak barne.

Sariak

Irabazle bakar bat egongo da, honek lau lagunentzako bisita eskusiboa edukiko du Gipuzkoako ondare bildumen zentroan, Gordailua

Epai mahaia

Epai mahai bat ezarriko da. Honen barnean: Igerraken arduradunak, Gipuzkoa Kultura, eta Ondare Lagunak parte hartuko dute.

Baldintzak

- Instagram edo Facebook sare sozialeetan norberaren profilaren bidez parte hartu.
- #OndareaGipuzkoa20 eta #Igerrak_OndareaGipuzkoa20 traolak erabiltzea argazki oinean.
- Argazki berriak zein zaharrak izan daitezke, beti ere zaharretan iruzkin bidez argazkiaren deskribapena eta traolak agertu badira.
- Instagram-en @GipuzkoaKultura, @OndareLagunak eta @Igerrak erabiltzaileak jarraitzeta gonbidatzen zaituegu.